

SURFA

Ohol gainean ibiltzeko hiztegia sortzen

Surfa mundu bitxia da ezagutzen ez duenarentzat. Modako kirola, aberaskume pijoekin, erdarekin, “guai”keriekin lotu izan da. Euskara osasunez olatu artean zer moduz dabilen jakin nahi izan dugu, eta Zarautza, Sopelara eta Angelura jo dugu.

ONINTZA IRURETA

Argazkia: Lander Arbelaitz

HARITZ LARRAÑAGA (1976) eta Mikel Troitiño (1969) 10-12 urterekin hasi ziren surfean Zarautzen (Gipuzkoa). Orain, Zarauzko Surf Eskolako irakasleak dira. Haurrak zirenean, surf giroan, euskararekiko jarrera nolakoa zen kontatu digute, baita orain hurrekin euskaraz aritzeko egiten duten ahalegina ere.

Bi hitzetan laburtu du Larrañagak haurra zeneko garaian surfean zegoen giroa: “Erdalduna eta diruduna”. Orain Karlos Arguiñanoren jatetxea dagoen inguru horretan elkartzen ziren 20-25 lagun surfean egiteko. Bilbotik asteburutan eta udan etortzen zen familia bat zen surfzalea eta zarauztarrak haiengana hurbildu ziren. Ez zekiten euskaraz eta dirudunak ziren. Koadrilakoek edo ikastolako lagunek euskaraz egiten zuten, baina bilbotarrekin, Madrildik etorritakoekin eta guraso erdalduneko zarauztarrekin gaztelaniaz. Dirudieenez nahikoa lan bazuten aurreiritziz jositako kirola praktikatzeko, surfa kirola baino denbora alferrik galtzeko modua zela esaten baitzen; kanpoan olatuei begira egon, barruan arraunean egin eta noizean behin olaturen bat hartu. Etxetik hondartzara ez ziren jaisten orain bezala, neoprenotan eta hanka-hutsik, lotsaz-edo hondartzan aldatzen zuten arropa. Euskarara? Bigarren mailako kontua zen.

Hamar bat urte geroago etorri zen aldaketa, Larrañagaren eta Troitiñorengana bederen. Kontzientzia piztu eta euskarari lotu zitzaizen gehiago. Bidelagun izan zituzten,



Haritz Larrañaga urretxuar taldeari Zarautzen eskolak ematen.

esate baterako, Josu Urteaga eta Joseba Iriondo ezaguna.

Gaztelaniaren tokiaz galdetzeaz bat, ingelesak eta frantsesak duten eraginaz galdetu diegu. Nazioartean eragin handiena duten hizkuntzak aipatzerakoan sailkapena horrela egin dute: ingelesa, frantsesa, gaztelania eta portugesa. Ingelesak du lehentasuna eta eguneroko surf hiztegian jada sartuta daude ingelesezko hitzak. Euskarazkoekin ordezkatzeari ez omen da erraza. Frantsesak ere indar handia du, olatu eder asko munduko hainbat irletan daudelako eta irla horietako batzuk Frantziaren koloniak dira.

Hitzak sortu eta erabili, lehenak ezinbestez bigarrena behar duela

dio Larrañagak: “Baserriaren edozein zati edo elementu izendatzeko hitzak baditugu euskaraz, baina surfaz hitz egiteko...”. Ohikoena hitzak ingelesetik eta gaztelaniatik itzultzea da, baina zalantza asko izaten dute. Esate baterako, ohol eta guzti aparraren azpitik pasatzea gaztelaniaz *hacer el pato* edo *hacer la cuchara* esaten da. “Ahatearena egin” formula pentsatu zuten baina, batetik, kopia borobila da eta bestetik, ahoskatze aldrebeza. Larrañagak eta Troitiñok surf eskolan “azpiratzea” erabiltzen dute. Beti sortze lanean aritu beharrean arraun munduari ere begiratzeko diote, batez ere olatu guneei eta formei buruzko hiztegia abera-

Sopelako surf giroan

David Bustamante surflariak hamabost bat urte daramatza Sopelako (Bizkaia) Peñatxuri surf eskolan. 33 urte ditu eta haurra zela ezagutu zuen giroa oso erdalduna zen: "Uretan hitz bat ere ez zen entzuten euskaraz". Duela hamar urtez geroztik ordea, gauzak aldatzen hasi dira, Bustamantek dioenez, "orain giroa euskaldunagoa da, oso erraza geneukan hori hala izateko".

Surf eskolan Sopelako haur-gazteak izaten dituzte, ia denak euskaraz moldatzen dira. Baten batek euskaraz aritzeko arazoak baditu irakasleak ez dira di-da batean gaztelaniara lerratzen, talde osoari euskaraz egiten diote eta gehienetan deserosotasunik gabe moldatzen dira denak. Beraien artean gaztelaniaz egiteko ohitura dute haurrek eta Bustamantek ezinbestekotzat jo du eskolako irakasleek euskaraz egitea beraien artean, bestela akabo. Hori bai, hala moduz 16 urtera arte egiten dute gaztetxoek euskaraz, baina behin adin horretatik aurrera, "euskaraz ez da 'guai' a eta ligatzeko garaia iristen zaienean gaztelaniara jotzen dute".

tsa delako. Bestalde, alboko herrietan erabiltzen diren hitzei erreparatzen diete. Zarautzen ondarroarrei, oriotarrei edo Adunakoei entzundako formak paperean idazten dituzte. Paperean geratzen dira ordea, erabiltzen ez badira. Eskolara datozen haur eta gazteekin egiten dute ahalegina euskaraz egin dezaten, eta horrela, surfeko hizkera garatu dadin.

16 urtera arte lortzen omen dute haur-gazteek euskaraz egitea, batzuetan ahalegin berezia eginez. Izan ere, taldean batzuetan izaten baita euskaraz ez dakien bakar hori; horrelakoetan bi irakasle aritzen dira bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Gero eta gehiago euskaraz eta ingelesez egiten dute, udan kanpotarrak baitatoz. 16 urtera arte esan dugu, adin horretatik aurrera argota erabili nahi dute, hitz "guai"-ak, eta euskara mantentzeko komeriak.

Kontzientzia piztu bidaiatuz

Olatuak, olatuak eta olatuak. Horren bila joaten dira surflariak munduko beste puntako irla galduetara ere. Hasierako urteetan surflariak ez omen du galdetzen nor bizi den irla horretan, ez zein hizkuntzatan hitz egiten duen, ez zer moduz bizi den. Geroago ordea, jakin-mina sortu eta hara, askotan irlak frantziarrek edo britaniarrek kolonizatutakoak dira, ingelesa eta frantsesa hizkuntz ofizial dituztenak, eta bertako hizkuntzak, identitatea zapalduta. Orduan akordatzen da "turista-surfista" berak ere baduela hizkuntza eta irla galdu horietako batean iaz ezagututako surflari alemaniarrak "egunon" eta "eskerrik asko" esaten dionean ilusio handia egiten diola.

Ereduen beharra aipatu du Troitiñok: "Aritz Aranburu bat

Glisseguna eta Uhaina surf eskola

Angelun (Lapurdi) Seaskak irailaren 21ean egin berri du Glisseguna. Irristatzearekin zerikusia duten kirolak eta euskara batu zituzten egun hartan. Festa betean ibili ziren haur, gazte eta ez hain gazteak. Asmoa euskarak kirol berrietan ere muturra sartzea.

Ia urte osoz Kortsarioak hondartzan aritzen da surf eskolak ematen Iban Iturbide. 37 urteko angeluarrak Uhaina surf eskola gidatzen du eta handik igarotzen diren haur-gazteen hizkuntza ohiturak aipatu dizkigu. Ikas-toletakoak doazenean eta Udaleku programaren bidez doazenean eskolak euskaraz ematen ditu, baina jendea bere kasa doanean apenas euskaraz aritzen den eskolak ematen, frantsesez eta gero eta gehiago ingelesez aritzen da.

izatea, euskaraz ariko diren surf eskolak, txapelketak, dendak... eta Frantzia eta Espainiari begira egon beharrean, euskarari eta ingelesari heltzea".

Surflari zarautzarrek itxaropena dute masifikazioak bereziak garenaren kontzientzia piztuko duela. Troitiñok hala dio: "Orain, euskaldunok bagara nahikoa *souvenir* surf munduan, baina masifikazioari esker kontura gaitezke gutxi gabela eta besteengandik bereizten gabela". ■

bertso saioa

Eguna: urriak 12, igandea • Ordua: 17:30
Lekua: Tolosa Leidor Zinema

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Bixente Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi • Gai-jartzailea: Saroi Jauregi



TOLOSAKO  UDALA

Antolatzailea:
Euskara Batzordea

Laguntzailea:
Gipuzkoako Bertsozale Elkarte